

Basarri bertsolariak, Euskalerriko basoen egoeraren inguruan egindako bertso–sorta.

6

1

Seme on danak amaren
moldez

beti oroituko dira,

zimur berriak ikusi nola

datozkion arpegira.

sarri nago ni mingotz
alditan

sorterriari begira,

gure Euskalerra kuttun,
laztana,

itxusten gogor ari da.

2

Gure lurretan len xamurra
zan

gozatzea kerizpean,

garai artako patxarak
oraiñ

zenek artu lezazkean!

Negar malkotan datozkit
sendo

egun bat eta bestean,

Altza ta lizar, aritz ta pago,

gaztaindi, intxaur ta arte,

millaka urte gure sailletan

egon zeratenak tente!

Etzaituztegu ikusten iñon

ta gu nahigabetan bete!

Lur santu, eder auek utzita,

norutz ezkuta zerate?

7

Baso–gizonak, agintariak,

eror zaitezte kontura,

gure erriari eman zaiogun

len zuen tankera ura.

Zuloak egiñ, landarak jarri,

klase guziak ingura,

mendi maiteak artu dezaten

lenago zuten itxura.

8

Zuaitz gabeko Euskalerra,

euskal mendien
burusoilketa
ain nabarmen ikustean.

3

Garai bateko zuaitz
ederrak
itzala zuten lekuko,
euskaldun dena nola
etzaigu

aietzaz gogoratuko?

Aurreko arrak piztu
baleizke,
ez ote bertan lertuko?

Beren lurralde
berdingabea
ez lukete ezagutuko.

4

Aberastasun aunditxoena

beingoz ezkutatua da,
burusoildurik aurkitzen
dira

nola ordeka ta malda.

Onek zer kalte dakarren
onuntz

ikusten dunik eza al da?

bai Euskalerrri tristea!

Ortatik laister izango ditu
gaitz bat ezpada bestea.

Gauzak zuzendu leizke
oraindik

au da geienen ustea-,
urak joatean alperrik degu
presak egiten astea.

9

Ogei, berrogei, urte direla
ortako bear direnak,
ezta ardurarik; oiek baitira

okerrikan txikienak!
Azaldu bitez mendi danetan
zuaizti bikaiñ, lerdanak,
artara eskertuko gaituzte
ondoren datozenak.

Basarriren bertso sorta,
Zarautz 1950

Tontor aundiak
berdintzen dira

kendu ta jartzen ezpada

5

Arraiak ura nai luke beti

inguru-aldamenetan,

larrerik ez dun artzaia
iñoiz

ez dago bere onetan.

Begiratuta zuaitzak giñun

lenago bazter danetan,

aiek gabeko Euskalerria

zatar deritzat benetan.